



Esp. kodea: 2018PHES0001

Titularra: LANBIDE SERVICIO VASCO DE
EMPLEO

Gaia: Lanbide: 2018ko Enplegua Sustatzeko
Programa

Hasiera data: 2018/06/21

ERANSKINA

LANBIDEREN 2018KO ENPLEGU SUSTAPEN PROGRAMA Langabezian dauden 10 pertsona, aldi baterako, kontratatze deialdia

HAUTAKETA PROZESUEN JARRAIPIDEAK

Arrasateko Udalak, Lanbide-rekin elkarlanean, 2018ko uztailaren 5ean hartutako udal akordioaren arabera, datozen hilabeteetan **10 lan-kontratu** egingo ditu, aldi baterakoak, **udalerrian bizi diren langabeentzat**.

✓ Kontratatuko diren lanpostuak

Hemen aipatzen ditugun lanpostuak betetzeko dira kontratu horiek:

LANPOSTUAK	PROIEKTUA	JARD.	IRAUP.
Zuzenbidean Lizentziatua	Kontratazio arloko espedienteen plantillak eta Udal Ordenantza eguneratzea	% 100	3,5 hil.
EITen Arkitektoa	Eraikuntzaren Ikerketa Teknikoak	% 100	3 hil.
Administraria	Munigex espediente kudeatzailea egoki betetzeko neurriak	% 100	5 hil.
Pintorea	Kirol instalazioetan margotze lanak	% 100	4 hil.
Baso/Erreka taldeburua	Baliabide naturalak errekuperatu eta basoko mantenu lanak	% 100	5 hil.
3 Baso/Erreka langile	Baliabide naturalak errekuperatu eta basoko mantenu lanak	% 100	5 hil.
Peoia (lorenzaintza)	Herriko lorategien hobekuntza lanak.	% 100	5 hil.
Peoia (elektrikaria)	Herrian dauden luminariak garbitu eta zenbatu	% 100	5 hil.

✓ Kontratatze baldintza orokorrak

Hautagaien baldintza hauek bete beharko dituzte bai eskaera egiteko unean bai kontratua egiterakoan:

- Kontratatuek langabeak izan eta izena emanda egon behar dute Lanbide-Enplegu Zerbitzuan lan-
eskatzaille gisa.
- Deialdia egin eta sei hilabete lehenagoz Arrasaten erroldaturik egotea.

Arrasaten erroldatutako hautagai egokirik lortzen ez bada, deialdi berri bat egingo da eta baldintza izango da Debagoienean erroldaturik egotea, lehenasuna emango zaielarik Arrasaten erroldatutakoei.



Esp. kodea: 2018PHES0001

Titularra: LANBIDE SERVICIO VASCO DE EMPLEO

Gaia: Lanbide: 2018ko Enplegua Sustatzeko Programa

Hasiera data: 2018/06/21

Kasu honetan, probak bukatutakoan, zerrenda bi egingo dira, puntuazio ordenan, probak gainditu dituzten hautagaiekin:

- 1) Gai diren hautagaien zerrenda, Arrasaten erroldatuak.
- 2) Gai diren hautagaien zerrenda, Debagoienean beste udalerrri batzuetan erroldatuak.

Epaimahaiak egingo du, lehenik eta behin, kontratazio proposamen bat lehen zerrendako hautagaien alde (Arrasate), puntuazio ordenaren arabera (merezimenduak+probak).

Ez badago gai den hautagairik zerrenda horretan, kontratazio proposamen bat egingo du 2. zerrendako hautagaien alde (Debagoiena), puntuazio ordenaren arabera (merezimenduak+probak).”

- c) Ezin dira kontratatu aurreko deialdietan kontratatuta izan diren pertsonak, hautagai libreak ez badaude behintzat. Baldintza hau Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak egiaztatu eta informatuko du.
- d) Baso/erreka langilea, pintorea eta lorezainaren kasuan, diru-sarrerak bermatzeko errenta (DBE) hartzen duten pertsona titularrak izan behar dira eta peoi elektrikariaren kasuan, baloratu egingo da.
- e) Baso/erreka taldeburuak 55 urte baino gehiago izan behar ditu.
- f) Gutxienez 4 emakume kontratatu beharko dira.
- g) Gainerako kontratuak egiteko, hautagaiak kolektibo hauetakoak izan behar dira: 35 urte beherakoak, 45 urtetik gorakoak, baldin eta enplegu-eskatzaille gisa kontratatu aurretiko 180 egun eman badute, 55 urtetik gorako pertsonak, luzaroko langabeak, gizarte-bazterketa jasatzeko arriskua duten pertsonak.

Deialdi honetan,

- Luzaroko langabetzat joko dira kontratatu aurretiko 540 egunetan Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan lan-eskatzaille gisa inskribatuta egon eta langabezian 360 egun gutxienez eman dutenak.
- Diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularrak eta haien elkarbizitza-unitateko kideak ez ezik, honako hauek ere hartzen dira gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden pertsonatzat:
 - 18 urtetik 30era bitarteko gazteak, adingabeak babesteko erakundeetatik datozenak.
 - Drogazaletasun-arazoak dituzten edo bestelako mendekotasun-arazoak dituzten eta errehabilitazioko edo gizarteratzeko prozesuan dauden pertsonak
 - Espetxean egonik, beren espetxe-egoeratik enplegu bat eskura dezaketen eta beren lan-harremana uztailearen 6ko 782/2001 Errege Dekretuaren 1. artikuluan araututako lan-harreman bereziaren aplikazio-eremuaren barruan ez duten presoak, baita baldintzapeko askatasuneko egoeran daudenak eta preso ohiak ere.
 - Preso adingabeak, adingabekoen zigor-erantzukizuna arautzen duen urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoaren aplikazio-eremuan daudenak, eta beren egoeratik enplegu bat eskura dezaketenak, eta beren lan-harremana uztailearen 30eko 1774/2004



Esp. kodea: 2018PHES0001

Titularra: LANBIDE SERVICIO VASCO DE EMPLEO

Gaia: Lanbide: 2018ko Enplegua Sustatzeko Programa

Hasiera data: 2018/06/21

Errege Dekretuak onartutako adierazitako Legearen Araudiaren 53.4 artikulua adierazten duen lan-harreman berezien aplikazio-eremuaren barruan ez dutenak, baita zaintzapeko askatasuneko egoeran daudenak eta preso ohiak ere

- Euskal Autonomia Erkidegoko agintaritza eskudunek baimendutako urgentziazko bizitoki-zentroetan ibili diren pertsonak
- Desgaitasuna dutenak
- Familia-erantzukizunak dituzten emakumeak. Familia-erantzukizunak dituzten emakume deritze beren kargura ezkontidea eta/edo 26 urtetik beherako seme-alabaren bat edo 26 urtetik gorako seme-alaba ezinduren bat edo harreraren hartutako adin txikikoren bat dutenei, beti ere familia-unitateko kideen batz besteko banakako errenta ez bada lanbide-artearen gutxienezko soldataren % 75 baino handiagoa. Agiri bidez behar bezala egiaztatuta behar dira aurreko baldintza horiek
- Genero-indarkeriaren biktima diren emakumezkoak

✓ **Lanpostu bakoitzerako baldintza espezifikoak**

Kontratu bakoitzak, lanpostuaren ezaugarrien arabera, titulazio, euskara jakitea, eta abar moduko baldintza jakin batzuk ditu ezarrita; eranskinean jasotakoaren arabera.

✓ **Eskabideak (LANBIDEtik) egiteko modua eta epea**

Hautaketa prozesuetan parte hartzeko interesa duten pertsonak izena eman behar dute LANBIDEn (bulego kolaboratzaileetan edo web orrian), LANBIDEn web orrian, udal webgunean eta gainontzeko euskarri informatiboetan iragarriko diren epeetan.

Aukera egiten duen lanpostu bakoitzeko inskripzio edo izen emate bat egin beharra dago.

✓ **Hautagaien aurretiko aukeraketa**

LANBIDEk egingo du hautagaien aurretiko aukeraketa, ezarritako baldintzen arabera.

✓ **Hautagaien azken aukeraketa**

Hautagaien azken aukeraketa Udalak egingo du, egokitasun probak eginez eta hautagaiek egiaztatutako meritua baloratuz, eranskinean jasotakoaren arabera.

✓ **Epaimahaia.**

Hautaketa prozesuko kalifikazio epaimahaia honela eratuko da:

- **Epaimahaiburua:**
 - Udal teknikari bat.
- **Epaimahaikideak:**
 - Postuari dagokion arloko teknikari bat.
 - Postuari dagokion arloko karrerako funtzionario bat.



Esp. kodea: 2018PHES0001

Titularra: LANBIDE SERVICIO VASCO DE EMPLEO

Gaia: Lanbide: 2018ko Enplegua Sustatzeko Programa

Hasiera data: 2018/06/21

- Udal funtzionario bat, ordezkaritza sindikalak proposatuta.
- **Idazkaria:**
 - Pertsonal saileko administrari bat.

✓ Informazioa eta kontsultak

Deialdi honi buruz Udalak hartzen dituen erabakiak (oharrak, aurrez aukeratutako hautagaien zerrenda, azterketak edo elkarrizketak egiteko deialdiak, hautaketa proben emaitzak, eta abar) udaleko web orrian argitaratuko ditu (www.arrasate.eus) eta interesdunen eskura jarriko ditu BAZen, Biztanleentzako Arreta Zerbitzuan.

Deialdi honi buruz interesdunek behar duten edozein informazio osagarri jasotzeko, hona jo dezakete:

– BAZ (Biztanleentzako Arreta Zerbitzua)

Arano eta Garcia maisu-maistrak kalea 8

Tel.: 943 252000

baz@arrasate.eus

✓ Bete beharreko baldintza bereziak eta egin beharreko probak:

➤ ZUZENBIDEAN LIZENTZIATUA

- **Baldintza bereziak:**
 - Titulua: Zuzenbidean lizentziatua edo gradua
 - Euskara: 3 HE egiaztatzea (agiriz)
- **Merituak:**
 - Euskara: 4 HE egiaztatzea (agiriz): 10 puntu.
 - Emakumea izatea: 5 puntu
 - Legezko ezintasun izaera edukitzea, ehuneko 33koa edo hortik gorako elbarritasun maila batekin, eta bateragarria izatea dagozkion zeregin eta egitekoak betetzearekin: 5 puntu.
- **Probak:**
 - *Praktikoa:* 0-35 puntura baloratuko da eta gutxienez 17,5 atera behar da aurrera egiteko.
 - *Elkarrizketa:* 0tik 15 puntu arteko balorazioa izango du, eta gutxienez 7,5 puntu lortu behar dira .



Esp. kodea: 2018PHES0001

Titularra: LANBIDE SERVICIO VASCO DE EMPLEO

Gaia: Lanbide: 2018ko Enplegua Sustatzeko Programa

Hasiera data: 2018/06/21

EIT-EN ARKITEKTOA

- **Baldintza bereziak:**
 - Titulua: Arkitektoa.
 - Euskara: 3 HE egiaztatzea (agiriz)
- **Merituak:**
 - Euskara: 4 HE egiaztatzea (agiriz): 10 puntu
 - Emakumea izatea: 5 puntu.
 - Legezko ezintasun izaera edukitzea, ehuneko 33koa edo hortik gorako elbarritasun maila batekin, eta bateragarria izatea dagozkion zeregin eta egitekoak betetzearekin: 5 puntu.
- **Probak:**
 - *Praktikoa:* 0-35 puntura baloratuko da eta gutxienez 17,5 atera behar da aurrera egiteko.
 - *Elkarrizketa:* 0tik 15 puntu arteko balorazioa izango du, eta gutxienez 7,5 puntu lortu behar dira .

➤ **ADMINISTRARIA (PERTSONAL SAILA)**

- **Baldintza bereziak:**
 - Titulua: Goi batxilerra, LH II edo baliokidea.
 - Euskara: 3 HE egiaztatzea (agiriz)
- **Merituak:**
 - Ikastaroak (Office): gehienez 5 puntu
 - Emakumea izatea: 5 puntu.
 - Legezko ezintasun izaera edukitzea, ehuneko 33koa edo hortik gorako elbarritasun maila batekin, eta bateragarria izatea dagozkion zeregin eta egitekoak betetzearekin: 5 puntu.
- **Probak:**
 - *Praktikoa:* 0-35 puntura baloratuko da eta gutxienez 17,5 atera behar da aurrera egiteko.
 - *Elkarrizketa:* : 0tik 15 puntu arteko balorazioa izango du, eta gutxienez 7,5 puntu lortu behar dira .

➤ **PINTOREA (KIROL SAILA)**

- **Baldintza bereziak:**
 - B gida baimena.
 - Diru-sarrerak bermatzeko errentaren (DBE) jasotzaile titularra izatea.
 - Urtebeteko lan-eskarmentua.
- **Merituak:**
 - Euskara: 1 HE egiaztatzea (agiriz edo dagokion proba eginez)
 - Emakumea izatea: 10 puntu.
 - Legezko ezintasun izaera edukitzea, ehuneko 33koa edo hortik gorako elbarritasun maila batekin, eta bateragarria izatea dagozkion zeregin eta egitekoak betetzearekin: 5 puntu.
- **Probak:**
 - *Abozko proba:* lanpostuaren funtzioekin lotutako oinarrizko galderak. 0-10 puntura baloratuko da eta gutxienez 5 puntu atera behar da aurrera egiteko.
 - *Praktikoa:* 0-40 puntura baloratuko da eta gutxienez 20 atera behar da aurrera egiteko.



Esp. kodea: 2018PHES0001

Titularra: LANBIDE SERVICIO VASCO DE EMPLEO

Gaia: Lanbide: 2018ko Enplegua Sustatzeko Programa

Hasiera data: 2018/06/21

➤ **BASO /ERREKA LANGILEEN TALDEBURUA**

▪ **Baldintza bereziak:**

- B gida baimena.
- 55 urte baino gehiago.
- Sei hilabeteko lan-eskarmentua.

▪ **Merituak:**

- Euskara: 1 HE egiaztatzea (agiriz edo dagokion proba eginez)
- Emakumea izatea: 10 puntu.
- Legezko ezintasun izaera edukitzea, ehuneko 33koa edo hortik gorako elbarritasun maila batekin, eta bateragarria izatea dagozkion zeregin eta egitekoak betetzearekin: 5 puntu.

▪ **Probak:**

- *Teoriko-praktikoa:* basolangile lanbidearen jakintzari buruz: 0-35 puntura baloratuko da eta gutxienez 17,5 atera behar da aurrera egiteko.
- *Elkarrizketa:* curriculum, lanpostuan egin beharreko lanean gaineko jakintza eta lana egoki betetzeko gaitasuna aztertzeko: 0-15 puntura baloratuko da eta gutxienez 7,5 atera behar da aurrera egiteko.

➤ **BASO/ERREKA LANGILEA**

▪ **Baldintza bereziak:**

- B gida baimena
- Sei hilateko lan-eskarmentua.
- Emakumea izatea.

▪ **Merituak:**

- Euskara: 1 HE egiaztatzea (agiriz edo dagokion proba eginez): 10 puntu.
- Legezko ezintasun izaera edukitzea, ehuneko 33koa edo hortik gorako elbarritasun maila batekin, eta bateragarria izatea dagozkion zeregin eta egitekoak betetzearekin: 5 puntu.

▪ **Probak:**

- *Teoriko-praktikoa:* basolangile lanbidearen jakintzari buruz: 0-50 puntura baloratuko da eta gutxienez 25 atera behar da aurrera egiteko.



Esp. kodea: 2018PHES0001

Titularra: LANBIDE SERVICIO VASCO DE
EMPLEO

Gaia: Lanbide: 2018ko Enplegua Sustatzeko
Programa

Hasiera data: 2018/06/21

BASO/ERREKA LANGILEA

- **Baldintza bereziak:**
 - B gida baimena
 - Diru-sarrerak bermatzeko errentaren (DBE) jasotzaile titularra izatea.
 - Sei hilateko lan-eskarmentua
- **Merituak:**
 - Euskara: 1 HE egiaztatzea (agiriz edo dagokion proba eginez): 10 puntu.
 - Emakumea izatea: 10 puntu.
 - Legezko ezintasun izaera edukitzea, ehuneko 33koa edo hortik gorako elbarritasun maila batekin, eta bateragarria izatea dagozkion zeregin eta egitekoak betetzearekin: 5 puntu.
- **Probak:**
 - *Teoriko-praktikoa*: basolangile lanbidearen jakintzari buruz: 0-50 puntura baloratuko da eta gutxienez 25 atera behar da aurrera egiteko.

➤ **BASO/ERREKA LANGILEA**

- **Baldintza bereziak:**
 - B gida baimena.
 - Sei hilateko lan-eskarmentua.
- **Merituak:**
 - Euskara: 1 HE egiaztatzea (agiriz edo dagokion proba eginez): 10 puntu.
 - Emakumea izatea: 10 puntu.
 - Legezko ezintasun izaera edukitzea, ehuneko 33koa edo hortik gorako elbarritasun maila batekin, eta bateragarria izatea dagozkion zeregin eta egitekoak betetzearekin: 5 puntu.
- **Probak:**
 - *Teoriko-praktikoa*: basolangile lanbidearen jakintzari buruz: 0-50 puntura baloratuko da eta gutxienez 25 atera behar da aurrera egiteko.

➤ **PEOIA LOREZAINZA**

- **Baldintza bereziak:**
 - B gida baimena.
 - Diru-sarrerak bermatzeko errentaren (DBE) jasotzaile titularra izatea.
 - Sei hilabeteko lan eskarmentua lorazaintzako peoi lanetan, edo ikasketak edo praktikaldiak lorezaintza arloan.
- **Merituak:**
 - Euskara: 1 HE egiaztatzea (agiriz edo dagokion proba eginez): 10 puntu.
 - Emakumea izatea: 10 puntu.
 - Legezko ezintasun izaera edukitzea, ehuneko 33koa edo hortik gorako elbarritasun maila batekin, eta bateragarria izatea dagozkion zeregin eta egitekoak betetzearekin: 5 puntu.
- **Probak:**
 - *Abozko proba*: lanpostuaren funtzioekin lotutako oinarrizko galderak. 0-10 puntura baloratuko da eta gutxienez 5 puntu atera behar da aurrera egiteko.
 - *Praktikoa*: 0-40 puntura baloratuko da eta gutxienez 20 atera behar da aurrera egiteko.



Esp. kodea: 2018PHES0001

Titularra: LANBIDE SERVICIO VASCO DE
EMPLEO

Gaia: Lanbide: 2018ko Enplegua Sustatzeko
Programa

Hasiera data: 2018/06/21

➤ **PEOIA (ELEKTRIKARIA)**

▪ **Baldintza bereziak:**

- B gida baimena.
- Sei hilabeteko lan eskarmentua elektrikari peoi lanetan, edo ikasketak edo praktikaldiak elektrikari arloan.

▪ **Merituak:**

- Euskara: 1 HE egiaztatzea (agiriz edo dagokion proba eginez): 10 puntu.
- Diru-sarrerak bermatzeko errentaren (DBE) jasotzaile titularra izatea: 15 puntu
- Emakumea izatea: 10 puntu.
- Legezko ezintasun izaera edukitzea, ehuneko 33koa edo hortik gorako elbarritasun maila batekin, eta bateragarria izatea dagozkion zeregin eta egitekoak betetzearekin: 5 puntu.

▪ **Probak:**

- *Abozko proba:* lanpostuaren funtzioekin lotutako oinarrizko galderak. 0-10 puntura baloratuko da eta gutxienez 5 puntu atera behar da aurrera egiteko.
- *Praktikoa:* 0-40 puntura baloratuko da eta gutxienez 20 atera behar da aurrera egiteko.